


Nola oroitu dugu Intxaurrondo?



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Donostia, 1968. Udalak Intxaurrondoko auzoko planifikazio urbanoa onartu zuen eta, ondorioz, 19 baserri bota zituzten. 1950eko hamarkadaren erdialdean hasi ziren langileentzako auzuneak eraikitzen, modu desordenatuan eta espekulazioa medio. Baina baserriak bota ondoren, 1970eko hamarkadan urbanizazioa modu planifikatuagoan egiten hasi ziren eta, pixkanaka, baserri eremua izandakoa etxebizitza blokez betetzen joan zen.

Hamarkada horren amaieran, Guardia Zibilarren egoitza berri bat eraikitzeko asmoa zuten Donostian. Baina eraikuntza lizentziak lortzeko oztopoak zituztenez, Madrilgo UCDko gobernuak langileentzako bloke multzo bat erostea erabaki zuen. Intxaurrondoko kuartela edo 513. komandantzia 1980an jarri zuten martxan, Enrique Rodríguez Galindo (1939-1921) komandantea buru.

Hasieran, auzoren zabalkundea osatu artean, kuartela isolatuta zegoen eta, berehala, muturreko segurtasun neurriek gotorleku bihurtu zuten; Fort Apache ezizena ere erabili zuen zenbaitek. Batzuentzat ETAREN aurkako borrokaren sinbolo da Intxaurrondo: 278 komando desaktibatu eta erakunde horretako 1.550 kideren atxilotetak bideratu omen ziren handik.

Baina ehunka eta ehunka tortura salaketetan oinarritzen direnek, beste titulu batzuk eman dizkiote kuartelari: "Torturen laborategia", "Europa mende-



QUIRICO LOPEZ ROMERO

Intxaurrondoko kuartelaren sarrera 1980ko hamarkadan.

baldeko tortura gune nagusia". Intxaurrondoko kuartelarekin lotutako lehen tortura kasua egoitza inauguratu baino lehen gertatu zen. Egoitza administratiiboak eraikitzen ari zirela ETAK lehergailu bat eztanda arazi zuen eta Mikel Amilibia atxilotu zuten horregatik. Frogarik gabe aske utzi zuten arren, Juan Mari Bandres abokatuak Amilibia torturatu zutela salatu zuen. Eta ez ziren soilik atxilotuak edo haien abokatuak torturak salatzen zituztenak. Amnistia Internazionala erakundeak 1984an lehenengoz salatu zituen Intxaurrondoko bi tortura kasu.

Mundu osoan, tortura gune izandako hainbat eraikin oroimen gune bihurtzen ari dira. Txilen, Pinocheten garaian atxiloteta eta tortura gune nagusi izandako Villa Grimaldi Bakearen Museo bilakatu

dute. Santiagoko estadioan dozenka pertsona torturatu eta hil zituzten 1973an, besteak beste, Victor Jara, eta 2003az geroztik, poeta eta abeslariaren izena darama estadioak. Bartzelonan, Via Laietana poliziaren egoitza "demokrazien oroimen toki" bihurtzeko izapideak abiatu dituzte, frankismoan sistematiko ki egindako torturak ahaztu ez daitez. Donostian bertan, iaz, La Cumbre jauregia udalaren esku uzteko eta memoria gune bilakatzeko akordioa sinatu zuten Espainiako Gobernuarekin. Lasa eta Zabala La Cumbren torturatu zituzten, eta Intxaurrondoko kuartelean ere bai. Baina, Europa mendebaldeko tortura gune nagusiak Gipuzkoako Guardia Zibilarren Komandantziaren egoitza izaten jarraitzen du. ●



YORKEKO UNIBERTSITATEA

Animalia bikingo bidaiariak

IX. mendean bikingoek Ingalaterra ekialdeko kostaldean eraso egin zuten, monasterioak arpilatu eta harrapatutakoarekin etxera itzultzeko. Baina gutxienez talde bikingo horietako bat luzeago geratu zen, Heath Woodeko aztarnategia lekuko. Nekropolian, besteak beste, erretako hezur multzo bat topatu zuten eta, orain, arrastoak aztertuta, ikusi dute giza hezurrez gain ani-

malia hezurak ere badaudela, zehazki, txakur, zaldi eta txerri hezurak. Gainera, hezurretako estrontzio isotopoak aztertuz jakin ahal izan dute animalia horiek egungo Norvegiar eta Suedia iparraldean zutela jatorria. Ikerlanak, ondorioz, bikingoen filmetan ikusten ez dugun irudi bat utzi digu: bikingoek itsasontzietan beren animaliekin bidaiatu ohi zuten. ●